



## SEXU-ERASOEN AURREAN

### SEXU-ERASOAK

*Jasaten dituen emakumea bortxatzen duten eta haren sexu-askatasunaren aurka egiten duten sexu-jokabideak*

### ZERGATIK JARDUN

- ✓ Berehala esku hartu ahal izateko
- ✓ Biktimari babesa eta laguntza emateko

### NOIZ JARDUN

Eraso mota horri aurre egiten badiozu, haren berri baduzu, ikusten baduzu edo norbait hurbiltzen bada eta laguntza eskatzen baduzu.

### NOLA JARDUN

1. Sexu-eraso bat pairatzen baduzu, larrialdiko arreta eska dezakezu 112 zenbakira deituta. Behar baduzu, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo zugandik gertu dagoenari.
2. Sexu-eraso bat gertatu bada, hurbildu erasotuarengana eta galdetu laguntzarik behar duen.

Norbait laguntza eske hurbiltzen bazaizu, eman lehentasuna.

- ▶ Arretaz eta errespetuz entzun. Eman iezaiozu laguntza emozional guztia. Ez utzi bakarrik.
  - ▶ Premiazko laguntza behar badu, deitu 112 SOS Nafarroara.
  - ▶ Geratu harekin polizia iritsi eta erasotzailea identifikatu arte.
  - ▶ Berehalako laguntzarik behar ez badu, galdetu zer egin nahi duen. Salaketa bat jarri nahi badu, horri buruz erabakitzeko, komeni da informazioa eskatzea SAMari (Doako Arreta Juridikoko Zerbitzua, 112 SOS Nafarroaren bidez). Salaketa jartzen badu, SAM harekin joango da prozesu osoan.
3. Informazio garrantzitsua::
    - ▶ Bortxaketa bada, garrantzitsua da biktimak arropa ez aldatzea eta ez garbitzea. Ahoko bortxaketa izan bada, ez dezala edan, ez jan, erasotzailearen aurkako frogak desagertu baitaitezke.
    - ▶ Foruzaingoak, Ospitaleak edo Osasun Zentroak (112) esku hartzen dutenean, ofiziozko salaketak jartzen direla jakin behar du.